

MUSIKA ESKOLAKO HELBURU OROKORRAK

- 1.– Musikaren eta dantzaren praktika artistikoaren gizarte-eskaera zabala asetzea.
- 2.– Musika- eta dantza-irakaskuntzak ematea, herritarren praktika aktiboa sustatzeko helburu nagusiarekin, banaka eta taldeka, jarduera kokatzen den gizarte-eremuarekiko interakziotik abiatuta.
- 3.– Gertakari artistikoa modu orokorragoan ulertzeko gutxieneko alderdi teoriko egokiak irakastea, sakontze handiago baten beharra duten ikasleek beraiek egindako eskaritik abiatuta, edo eskolaren beraren ekimenez.
- 4.– Adin guztietako ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, bizialdi osoko ikaskuntzarekin bat etorritik, arte-gaitasun berriak eskuratzen lagunduz, ezagutzak eguneratuz eta abileziak eta gaitasunak zabalduz.
- 5.– Arte bakoitzaren adierazpide espezifikoaren sorta aberats eta dibertsifikatuena eskaintzea, eta adierazpide horien guztien interakzioa sortzea sinergiak eta giza sormenaren askotariko moduen ikuspegi bateratua sortzen dituzten jarduera kolektiboetan.
- 6.– Irakaskuntzaren plangintza eta garapena pertsona bakoitzaren ahalmen eta gaitasunetara eta norberaren errealizaziora egokitzea, irakaskuntza-askatasuneko eta autonomiako testuinguru batean, eskaintza ikasleen interesetara eta ikaskuntza-erritmoetara egokituz.
- 7.– Arte-adierazpen guztiak ezagutzeko eta gozatzeko zaletasuna sustatzea, eta ikasleen eta gainerako herritarren espiritu kritikoa garatzea.
- 8.– Irakaskuntza inklusiboak eta bidezkoak bermatzea, pertsona guztiek Musika eta dantza-ikasketak egin ahal izateko, inolako bazterketarik gabe eta hezkidetza sustatuta.
- 9.– Irakasleen eta ikastetxeko gainerako profesionalen hobekuntza eta etengabeko eguneratzea sustatzea, Musika eta Dantzako irakaskuntzak hobetzen laguntzeko, berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloko prestakuntza eta hezkidetza barne.
- 10.– Gaitasun eta bokazio artistikoa duten ikasleak orientatzea eta ondorengo ikasketak profesionalak eta goi-mailakoak egiteko duten bidea prestatzea.
- 11.– Herritarrei zerbitzu kohesionatua, eraginkorra eta kalitatezkoa eskaintzea, besteak beste, Euskadiko musikaren eta dantzaren hezkuntza-ekosistema osatzen duten pertsona guztiekiko komunikazioa eta etengabeko koordinazioa sustatuz.
- 12.– Tokiko tradizioak eta kultura-ondarea bildu, sistematizatu eta zabaltzea, lotuta dagoen herriaren kultura-nortasunaren erdigune bihurtuta.
- 13.– Herri-kulturaren garapenean eragin positiboa izatea, ikasleek osatutako taldeen etengabeko jarduera publikoaren bidez.
- 14.– Herri-kulturan eragin positiboa izatea, ikasleei prestakuntza emateaz gain, arteak gizartean zuzenean hedatuz eta, horretarako, gure iturriak ikertuz, eta sorkuntza eta zabalkundea bultzatuz.